





EAEko ETXEBIZITZA HUTSAREN BILAKAERARI BURUZKO AZTERKETA LABURRA 1997-2011

adierazlea

1. Etxebizitza Hutsa EAEn - 2011






adierazlea

1. Etxebizitza Hutsa EAEn - 2011


EAE

Etxebizitza okupatuak eta hutsak, Lurralde Historikoen arabera. 2011



EAE

Jenderik gabeko etxebizitzak Lurralde Historikoa eta egoeraren arabera (jenderik gabeko etxebizitzarekiko %). 2011






adierazlea

1. Etxebizitza Hutsa EAEn - 2011


EAE

Etxebizitza hutsen jabetza mota. 2011



EAE



Etxebizitza hutsaren jabetzaren helburuak Lurralde Historikoen arabera (denboraldikoak edo bigarren bizitokiak kanpoan utzita). 2011





adierazlea

1. Etxebizitza Hutsa EAEn - 2011






adierazlea

1. Etxebizitza Hutsa EAEn - 2011

EAE

Etxebizitzak udalerrriaren tamaina eta motaren arabera. 2011


≤2.500 biztanle



Etxebizitza okupatuak 61.935 %78,8

Etxebizitza hutsak 16.627 %21,2 Jenderik gabeko etxebizitzaren % etxebizitza guztietikiko %9,5


2.501-10.000 biztanle



Etxebizitza okupatuak 131.568 %87,7

Etxebizitza hutsak 18.535 %12,3 Jenderik gabeko etxebizitzaren % etxebizitza guztietikiko %7,4


10.001-20.000 biztanle



Etxebizitza okupatuak 135.560 %90,8

Etxebizitza hutsak 13.700 %9,2 Jenderik gabeko etxebizitzaren % etxebizitza guztietikiko %7,0


20.001-40.000 biztanle



Etxebizitza okupatuak 103.651 %90,0

Etxebizitza hutsak 11.465 %10,0 Jenderik gabeko etxebizitzaren % etxebizitza guztietikiko %6,9


40.001-100.000 biztanle



Etxebizitza okupatuak 160.793 %95,7

Etxebizitza hutsak 7.167 %4,3 Jenderik gabeko etxebizitzaren % etxebizitza guztietikiko %4,0

≥100.001 biztanle



Etxebizitza okupatuak 335.701 %95,1

Etxebizitza hutsak 17.397 %4,9 Jenderik gabeko etxebizitzaren % etxebizitza guztietikiko %4,3




adierazlea

2. Etxebizitza hutsaren bilakaera EAEn - 2011

EAE


Etxebizitza huts eta okupatuen bilakaera EAEn, etxebizitza guztiekiko (%). 1999-2011



(*) Zentsu-sekzio hiritarrei buruzko informazioa soilik: hau da, barreiaturik duten biztanleria % 10etik beherako duten zentsu-sekzioak.

EAE

Etxebizitza hutsen bilakaera EAEn, motaren arabera (denboraldikoak eta jenderik gabekoak) (%). 1999-2011



(*) Zentsu-sekzio hiritarrei buruzko informazioa soilik: hau da, barreiaturik duten biztanleria % 10etik beherako duten zentsu-sekzioak.




adierazlea

2. Etxebizitza hutsaren bilakaera EAEn - 2011

EAE


Etxebizitza hutsen bilakaera EAEn etxebizitza guztiekiko, Lurralde Historikoen arabera (%). 1999-2011



(*) Zentsu-sekzio hiritarrei buruzko informazioa soilik: hau da, barreiaturik duten biztanleria % 10etik beherako duten zentsu-sekzioak.

EAE

Jenderik gabeko etxebizitzaren bilakaera EAEn etxebizitza guztiekiko, Lurralde Historikoen arabera (%). 1999-2011



(*) Zentsu-sekzio hiritarrei buruzko informazioa soilik: hau da, barreiaturik duten biztanleria % 10etik beherako duten zentsu-sekzioak.




adierazlea

2. Etxebizitza hutsaren bilakaera EAEn - 2011

EAE


Kudeatzekoak izan daitezkeen etxebizitzaren bilakaera (etxebizitza guztiekiko) (%). 2003-2011



(*) Zentsu-sekzio hiritarrei buruzko informazioa soilik: hau da, barreiaturik duten biztanleria % 10etik beherako duten zentsu-sekzioak.

EAE

Kudeatzekoak izan daitezkeen etxebizitzak Lurralde Historikoen arabera (etxebizitza huts guztiekiko). 2005-2011




(*) Zentsu-sekzio hiritarrei buruzko informazioa soilik: hau da, barreiaturik duten biztanleria % 10etik beherako duten zentsu-sekzioak.



adierazlea

2. Etxebizitza hutsaren bilakaera EAEn - 2011






adierazlea

2. Etxebizitza hutsaren bilakaera EAEn - 2011

EAE


Etxebizitza hutsaren ezaugarriak: azken erabilpena. 1997-2011



(*) informazioa zentsu-sekzio hiritar eta landa zentsu-sekzioei dagokie.

EAE

Etxebizitza hutsaren ezaugarriak: erabiltzeko era. 1997-2011



(*) ED/EE: 2001 (%1,4).

(**) informazioa zentsu-sekzio hiritar eta landa zentsu-sekzioei dagokie.




adierazlea

2. Etxebizitza hutsaren bilakaera EAEn - 2011

EAE

Etxebizitza hutsaren ezaugarriak: azken erabilpenaren erabiltzaileak 1997-2011




(*) ED/EE: 2001 (%1,2), 2009 (%3,9).

(**) informazioa zentsu-sekzio hiritar eta landa zentsu-sekzioei dagokie.

EAE

Etxebizitza hutsaren ezaugarriak: jabetzaren helburuak. 1997-2011



(*) Ez dago eskuragarri (1997).

(**) informazioa zentsu-sekzio hiritar eta landa zentsu-sekzioei dagokie.




adierazlea

2. Etxebizitza hutsaren bilakaera EAEn - 2011

EAE

Etxebizitza hutsaren ezaugarriak: azalera erabilgarria. 1997-2011




(*) ED/EE: 1997 (%14,5), 1999 (%1,8), 2001 (%2,3), 2003 (%0,1).

(**) informazioa zentsu-sekzio hiritar eta landa zentsu-sekzioei dagokie.

EAE

Etxebizitza hutsaren ezaugarriak: etxebizitzak gela kopuruaren arabera (egongela eta sukaldea kanpoan utzita). 1997-2011




(*) ED/EE: 1997 (%12,5), 1999 (%1,4).

(**) informazioa zentsu-sekzio hiritar eta landa zentsu-sekzioei dagokie.



adierazlea

2. Etxebizitza hutsaren bilakaera EAEn - 2011





EAEko ETXEBIZITZA HUTSAREN BILAKAERARI BURUZKO AZTERKETA LABURRA 1997-2011

Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden etxebizitza hutsei buruz bi urtean behin egindako Inkestatik ateratako informazioa. 1997-2011 denboraldia.

2007. urtea: EAEn hutsik dagoen eta jenderik gabeko Etxebizitzan inflexio-puntua

Etxebizitza hutsaren bilakaerak Euskal Autonomia Erkidegoan **inflexio-puntu garrantzitsua adierazten du 2007an**, hau da, **joera-aldaketa hasten den urtean**. Urte hori arte, etxebizitza hutsak etxebizitza guztiekiko duen pisua larriki murriztuz doa, 1999an edo 2001ean % 10 gainditzen duten portzentajeetatik abiatuz eta 2007an % 5etik azpitik kokatuz.

Urte horretatik aurrera, datuen bilakaeran aldaketa ikus daiteke; horrela, **2011n % 8 inguruan kokatzen den etxebizitza hutsaren portzentajearen pixkanakako gehitzea** hasten da. Gipuzkoa eta Bizkaia dira bilakaera horren portaera markatzen ari diren lurraldeak.

la joera bera ikus daiteke jenderik gabeko etxebizitzaren kasuan etxebizitza guztiekiko, kasu honetan hiru lurraldek antzeko joera adierazten duten arren.

Etxebizitza hutsaren tipologiari dagokionez, ezberdintasun adierazgarriak antzematen dira ere aztertutako denboraldian. Jenderik gabeko etxebizitzek pisu nabarmenagoa eduki ohi dute etxebizitza hutsen artean, serieko balore baxuenak 2007an erregistratuz (% 57) eta balore gorena 2011n erdietsiz (% 70). Ostera, denboraldiko etxebizitzaren kopurua larriki murriztu da azken urteetan.

Kudeatzekoak izan daitezkeen etxebizitzei dagokienez, hau da, bigarren bizitokia ez diren eta merkatuan salgai edo alokairuan ez dauden etxebizitza hutsak, aipa daiteke etxebizitza guztiekiko portzentajea arinki igo dela 2011n (% 4), 2007-2009 denboraldiaren ondoren, garai hartan pisu hori mantendu baitzen (% 3).

Etxebizitza hutsaren bilakaera oso ezberdina da Lurralde Historikoen arabera: horrela, adibidez, alderdi horretan **Bizkaia** da EAEko portzentaje txikienak adierazi ohi dituen lurraldea: 2007an minimoa % 3,5 zen eta gaur egun % 6 inguruko zifra erakusten du. Bestalde, serie historikoaren hasieran, etxebizitza hutsaren pisua nabarmena da **Arabari** (1999an eta 2001ean % 13 gainditzen du); hala ere, pisu hori 2005era arte murriztuz doa (% 7), urte horretan joera aldaketa emanez. Azkenik, **Gipuzkoak** Bizkaiko bilakaeraren antzekoa erakusten du, 2007tik geroztik (% 6) etxebizitza hutsaren kopurua gehituz joan den eta gaur egun EAEko portzentajerik altuena adierazten duen lurraldea den arren (% 9,4).

Etxebizitza hutsaren azken erabilpena eta erabiltzaileak

Antzemandako ia etxebizitza huts guztiak bizitoki gisa erabili izan dira aspaldian, eta aztertutako denboraldian zehar ez da aldaketa handirik eman erabilpenean.

Normalean etxebizitza horiei emandako azken erabilera ohiko bizitoki bezala izan da; aukera hori pisua galduz joan da 2001ean lortutako % 60,2rekiko, eta 2007tik geroztik pisua gehitu du berriro, 2011n % 60,8 lortuz. Baita, "oporretarako soilik" erabilera aldatu da ere, azken aukera hori 1997tik geroztik bikoiztuz (% 8,4 1997an eta % 15 2011n).

Denboraldian zehar, etxebizitzaren azken erabilpenari dagokionez, erabiltzaile mota pixka bat aldatu da eta jabeek beraiek okupatzen dituzten etxebizitzaren kopurua gehitu da (ia % 90 2011n eta % 82 inguru 1997an). Aldi berean, errentarien okupazioa murriztu da (% 9 2011n eta % 16 1997an).

Bizitokia, etxebizitza hutsaren jabetzaren helburua


Etxebizitza hutsaren helburu nagusia bigarren bizitoki bezala erabilia izatea da; aukera hori ohikoena da serie historiko osoan zehar, 2007tik geroztik helburu honek 10 portzentajezko puntu galdu dituen arren.

Ostera, etxebizitza "salerostea" helburutzat duen jabetza gehitu da, batez ere aztertutako azken urtean (2009 edo 1999arekiko portzentajezko bost puntu).

Egiturazko ezaugarriak

Egiturazko ezaugarrien arabera etxebizitza hutsa mota arinki aldatu da, bilakaerari erreparatuta. Etxebizitza hutsen kopuru handienak 50-100 metro koadroko azalera erabilgarria du, eta joera hori mantendu da azken urteetan zehar. Halaber, tamaina txikiako etxebizitza hutsak (50-74 metro koadrokoak) arinki gehitu dira 2005etik geroztik.

2011ko datuak aurreko urtekoekin alderatuz, gela kopuru handiena (bost edo gehiago) duten etxebizitza hutsen portzentajea jaitziz joan da modu adierazgarrian, batez ere 2005etik geroztik.

 Informazio osagarria eskura dago [Etxebizitzako Behatokiaren webgunean](#)